

HARREMANAK

Bezeroekiko harremana bai gazte eta baita helduei zuzendua egon behar duenez, erronka bat izan daiteke. Gazteek sare sozialetan jaioagoak direnez beraien artean zerbitzuaren berri ematea errazagoa izango da. Aldiz sare sozial horretatik abiatuta gazteek beraien gurasoei informatu dezakete eta horrela helduen artean ahoz ahokoaren bitartez gure aplikazioaren berri emanaz. Helduek erabiltzen dituzten sare sozialetan ere hainbat

kontu sortuko ditugu, edo publizitate gisa zerbitzuaren berri eman. Bizi izan dugun egoerak agerian utzi du eskolako zalantzak eta zailtasunak argitzeko zerbitzuak duen indar falta. Eta hori, eskaintza eskariaren artean dagoen harreman faltaren fruitu dela ondorioztatu dugu. Hezkuntza sistema online diren plataformetara egokitu den bezala, eskola ordu kanpoetan horrelako zerbitzua online emateko aukera ere ekarri dezake, beti ere irakasle eta ikaslearen arteko laguntza pertsonala eskainiz.

